



ARRAUNA

HIBAIIKA arraun elkarteak, 8 urtetik 12 urte arteko ikasleentzat arraun ikastaroa antolatu du. Goizez izango litzateke, 09:00etatik 13:00etara uztailako egun batzuetan. Interesik edukiko bazenute idatzi info@hibaika.com helbide elektronikora.

ORONA

Oronak, datorren udaran, udaleku teknologikoak antolatu ditu. Zuen seme-alabak bertan matrikulatu nahi izanez gero deitu 943000333 edo sartu www.kode-eskola.eus web orrian. Bertan informazio gehiago lor dezakezue.

MEDIATEKA

Ikasturtea bukatzen ari denez, zuen seme-alabek etxean dituzten mediatekako liburuak ekarri behar dituzte. Guk eskolan gogorarazteaz gain, zuek etxean gogoraraztea ere asko eskertuko genuke.



JANGELA

Datorren ikasturtetik aurrera, ohiko menuaz gain, menu begetarianoa, txerrikirik gabekoa, obolaktobegetarianoa eta obolaktobegetarianoa arrainarekin edukitzeko aukera izango duzue. Bestalde, ohikoa den bezala, Osakidetzako agiriarekin, alergiak dituzten ikasleen beharrak jaso eta kudeatu ditzakegu. Dudarik izanez gero edo informazio gehiago nahi izanez gero, 943490193 telefono zenbakira deitu.



HHI/EPA

Errenteriako HHI/EPA gurekin harremanetan jarri da. Datorren ikasturtean, gurasoei euskarazko saioak emateko aukera izango dute gure ikastetxean, ikasleak eskola orduan dauden bitartean. Zuen interesak hobeto ezagutu eta ordutegien kudeaketa egoki bat egin ahal izateko, deitu eskolako telefono zenbakira eta zuen lehentasunak jasoko ditugu.

YOGA

Datorren ekainak 16an, igandea, goizeko 10:45etan hasita, Yoga saioa egingo dute Elorsoro kiroldegian 5 urtetik gorako umeei. Izen ematea erabat beharrezkoa da 645005496 telefono zenbakian. Bestalde, gogoratu arropa arina eta manta eramatea erabat beharrezkoak direla.



OPORRAK

Datorren ostirala, ekainak 21, ikasturteko azken eguna da. Oporrez gozatu irailak 9 bitarte. Udara hasieran, hurrengo ikasturteko egutegia jasoko duzue.

www.elizaldekogurasoelkarta.blogspot.com.es eta www.elizalde.eus





